



|                  |                                                              |
|------------------|--------------------------------------------------------------|
| <b>Izenburua</b> | Euskara 2.0: Euskara Interneteko sare sozialen testuinguruan |
| <b>Egilea</b>    | Gorka Julio                                                  |
| <b>Data</b>      | 2010/07/12-13                                                |

## **Edukiak**

|                                                          |    |
|----------------------------------------------------------|----|
| Sare sozialak, teoria pixka bat .....                    | 3  |
| Sare sozialak Interneten, euskara eta testuingurua ..... | 8  |
| Sarearen topologiak garrantzi handia dauka .....         | 9  |
| Lotura arinak baliatu .....                              | 10 |
| Sare-komunitateak indartu .....                          | 10 |
| Sareetan izan, ez egon .....                             | 11 |
| Ziurgabetasun ziurragoa .....                            | 12 |
| Jarrera emergenteak ahalbidetu .....                     | 14 |
| Ondorioak .....                                          | 15 |

## Sare sozialak, teoria pixka bat

Sare sozialak orain sare sozial birtualekin lotzen baditugu ere, pertsonak eta horien arteko erlazioek osatutako sareak dira. Sare sozialen azterketa ez da berria. Hasieran egituren analisi estatikoa nagusi bazen ere, orain sare sozial horietan gertatzen diren dinamiken azterketan oinarritutako analisia da nagusi. Analisi mota horrek egindako ibilbidea, gure jendartea hobeto ulertzeko tresna da. Garrantzitsuak dira gure jendartean sortzen diren dinamikak, sare sozial birtualetan gertatzen direnak ere ulertu ahal izateko. Horregatik atal honetan, oso baliagarria izango zaigu teoria pixka bat ezagutzea, [David de Ugartek](#) horren gainean egindako [laburpen bat](#) eta testuetan aipatzen diren beste hainbat erreferentzia erabiliko ditut horretarako.

Sare sozialak, normalean, grafoen bidez adierazten dira. Nodoak pertsonak dira eta horien arteko harremanak, aldiz, ertzak. Era horretan pertsona multzo batek dituen harreman mota ezberdinak adieraz ditzakegu. XVIII. mendean Königsberg-en (Kaliningrado) [Eulerrek](#) gauza garrantzitsu bat erakutsi zion munduari. Königsberg-etik Pregel ibaia igarotzen da eta horrek irla antzeko batzuk sortzen zituen. Irla horiek zubien bidez lotzen ziren aldeetara. Herrian bazegoen joko antzeko bat, esaten zuena ezinezkoa zela zubi horiek igarotzea, baten batetik bi aldiz pasatu gabe. Hori frogatzeko Eulerrek grafo teoria erabili zuen, irlak nodo bezala jarri eta zubiak harreman bezala markatuz.



*Königsberg-eko zazpi zubiak eta Eulerren teorema ([Wikipedia](#))*

Eulerrek hori ezinezkoa zela frogatu zuen. Azterketa horretatik [Eulerren teorema](#) dator. Ertzak behin bakarrik zeharkatzen dituen ibilbide bati **Eulerren ibilbidea** deritzo. **Eulerren ibilbidea** izateko, abiapuntuan eta helmugan izan ezik (bi erpinetan izan ezik, alegia), beste erpin guztietako mailak bikoitiak izan behar dute. Erpin berean hasi eta bukatzen bada, **Eulerren zirkuitua** dagoela esaten da. Kasu horietan erpin guztietako mailak (abiapuntua eta helmuga barne) bikoitiak dira.

Horren zentzu matematikoan gelditu gabe, garrantzitsuagoa da ikustea [Albert-Lászlo Barabási](#) irakasleak [Linked](#) liburuan adierazten duena.


*Grafo edo sareek, beraien egituraren barnean, gauzak egiteko aukerak edo mugak ezartzen dituzte.*

Zer gertatuko den baino, zer gerta daitekeen adierazten digute. Egituraren atzean ere boterea dagoela, alegia. Beraz, edozein sare inoiz ez da neutrala izango, sorreratik bertatik.

Jendartea bera ere grafo handi bat bezala uler dezakegu. [Stanley Milgram](#)-ek famatua den [Small world](#) esperimentuan erakutsi zuenez, mundua oso txikia da. Berak egindako esperimentuan, egin beharrekoa azaltzen zuten hainbat gutun bidali zituen AEBetan barna. Gutun horietan ausaz aukeratutako pertsona batzuek, ezagunak ez ziren beste urruneko pertsonari bidali behar zizkieten gutunak. Hartzailea ezagutzen ez bazuten (normalena) gutuna beraien ustez errazen iritsiko

zitzaion pertsonari bidali behar zioten. Horrela helmugara iritsi arte. Milgram-en atzetik esperimentu horren beste aldaera asko etorri dira. Matematikariek, Paul Erdős-ekin beren lanek duten lotura zenbat graduetara dagoen aztertzen dute. Aktoreek aldiz Kevin Bacon-ekin dituztenak, adibidez.


Esperimentua amaitzean konturatu ziren pertsona horien artean sei gradutako (edo pausotako) jauzia bakarrik zegoela. Hau da, 'mundu txikia izenez' ezagutzen diren sareen propietateak dituztela. Sare horiek, harreman zuzena izan gabe, oso jauzi gutxitan jende askorengana iristeko aukera ematen dute, normalean zubi lanak egiten dituzten nodeloi esker.



*Small world sarea ([Wikipedia](#))*

Baina normalean jendartean, gure lehen mailako kontaktuekin harremana izateko joera daukagu. Hau da, bi pertsona ezagutzen badituz, normalena da bi pertsona horiek ere beraien artean ezagutzeko aukera izatea. Orduan nola da posible fenomeno hori? Ba *cluster* horien artean loturak egiten dituzten pertsonen esker. Lotura gutxi badira ere, nahikoak dira sarea elkarrekin lotuta mantentzeko. Lotura horiek oraingo teknologiak -blogak, posta elektronikoak, Interneteko sare sozialak- erabiliz hori askoz errazago lortzen da. Lotura horiek normalean lotura arinak dira.


Baina, pentsa dezakezue nolabait lotura mota horiek ez dutela lagun edo familiarteko loturen indar bera. [Mark Granovetter](#) soziologoak [The Strength of Weak Ties](#) esperimentuan azaldu zuenez, lotura horiek garrantzia handia dute mezuak zabaltzeko garaian. Normalean, analisi estatiko batean kontuan hartzen ez diren lotura horiek dira mezua pasatzeko baliatzen direnak. Lana bilatzeko, adibidez, oso baliagarriak dira, mezua zure *cluster*-etik kanpo garraiatzen laguntzen baitute.



*Lotura gogorak eta arinak (Mark Granovetter)*

Ondoren, [Malcolm Gladwell](#)ek, Granovetterrek epidemien zabalkundeari buruzko ikerketak eta lotura arinen teoriak hartu eta hedatzea lortu zuen. Pertsonen arteko sareetan hainbat pertsona mota sailkatu zituen, *Connectors*, *Mavens* eta *Salesmen*, [The tipping point](#) liburuan. *Connectors*, gure munduak mundu txiki baten ezaugarriak izan ditza laguntzen duten pertsonak dira. Harremanak egiteko erraztasunak dituztenak eta hainbat *cluster*-etatik atzigarriak direnak. *Mavens*-ak, aldiz, ezagutza handia metatzen duten pertsonak dira. Besteen arazoak konpontzen saiatzen direnak, propioak ere konponduz. Beren gaiari buruz duten ezagutzagatik eta jarrerengatik erreferentzialak izan ohi dira eta horiek dira gehienbat joera berriak sortzeko gaitasun handiena dutenak. Amaieran *Salesmen*-ak bereizten ditu. Bere izaeragatik beste hainbat pertsona beraiekin ados jartzeko gaitasuna erakusten duten pertsonak dira. Katetoria horiek ez dira zurrinak, noski.

Era berean, sareetan epidemiak nola sortzen diren azaltzen saiatzen da. Oso ohikoa da gehien konektaturiko pertsonak zerbait hedatzeko aukera gehiago dutela pentsatzea, baina lotura arinek erakutsi digute ez duela zertan horrela izan behar. Batzuetan espero ez dugun zirrikitu batetik hasten dira gauzak eta *tipping point* –ean bukatzen dira, masa kritiko bat lortzen dutenean.



*Connector, Maven, Salesman (Vox Pop Design)*

Era horretako loturak, normalean, handitzen ari diren eta nodo bakoitza zeinekin lotu daitekeen erabakitzeko aukera duten sareetan sortzen dira. Hau da, WWW, Interneteko sare sozialak eta oro har sare asko horrelakoak dira. Normalean, probabilitate handiagoarekin, lotura gehien dituzten nodoekin lotzeko joera izaten dute. Barabasi-k *Linked* liburuan azaldu bezala, potentzia lege bat betetzen dute.

*Tipping point* horien sorrera ulertzeko beste zerbait ezagutu beharko dugu oraindik. [Duncan Watts](#) eta bere ondorengoek erakutsi zuten sareetan pertsonak bata besteekin harremana izatean, harremanak itxiak edo irekiak izan daitezkeela. Hau da, adibidez, familiartean gauza gehienetarako irekita badaude, laneko pertsonen artean bakarrik gai konkretu batzuekiko egongo dira irekita. Ondoren, [Michael Chwe](#)-k informazio horri beste zerbait gaineratu zion. Momentu batzuetan, testuinguruaren arabera, pertsonak lotura batzuk irekiz eta itxiz bere ingurunea aldatzeko joera izan dezake.

Hori dena ulertzeko, [Juan Urrutiak](#) matxinatze-atalasea ([umbral de rebeldía](#)) kontzeptua sortu zuen. Horrek adierazten du nire inguruan zenbatek aldatu behar duten bere izaera, nik nirea aldatzeko eta sozialki baztertua ez izateko. Horrek guztiak azaltzen du nola zenbait kasuetan aldaketa txiki batzuek, eragin globala izan dezaketen. Nolabait aldaketa txiki batek, beste baten ingurunean eragiten du eta mezua pasatu edo ez erabakitzen du (harremanak ireki edo itxiz), atalase horren arabera. Kasu horietan elkar ezagutzea beharrezkoa da, besteen atalaseak ezagutzeko.




Fig. 1. Dos formas de red alternativas

*Chweren kontzeptuak azaltzeko bi sare mota ezberdin ([Historia del analisis de redes sociales](#))*

Matxinatze-atalasea 3 izango balitz nodo guztietan, hau da, nire inguruko 2 nodok nire jarrera antzekoa hartuko balute, nik ere har nezake. Kasu horretan, lehenengo irudian ez litzateke “matxinada” piztuko, beraien ingurukoak ezagutzen badituzte ere, osotasunean beste 4.a ezagutzen ez dutelako eta, beraz, dudak daudelako zer gertatuko den. Aldiz kometan 1,2,3 nodoak beti “matxinatuko” dira egoera horretan, 4. nodoa, aldiz, inoiz.

Baina zer gertatzen da matxinatze-atalasea oso altua bada: 5, adibidez. Ez bat ez beste inoiz ez lirateke matxinatuko. Orduan ondorio berri baten aurrean gaude. Matxinatze-atalase baxuetan errazagoa da matxinada gertatzea, nodoek beraien artean harreman estuak badituzte. Baina matxinatze-atalase altuen aurrean nodoen arteko harremanak arinak badira, hobe. Harreman arin horiei esker, agian, nodo berriak erakarriko dituzte sarera. Nodo berri horiek testuingurua aldatu eta egoera aldatu dezakete.

Horrek [Paul Baranen](#) Interneten sorrerara eramaten gaitu. Bertan oinarritzko sare tipologiak definitzen ditu: zentralizatua, deszentralizatua eta banatua. Lehenengoan kontrol guztia duen nodo zentral bat dago. Bigarreanean nodo zentralik ez, baina bai zentralagoa den nodo ezberdinez osatutako *cluster* bat. Azkenik sare banatuak daude, non ez dagoen kontrol zentralik eta nodo batetik bestera igarotzeko bide asko dauden. Sare banatuek erroreekiko eta deskonexioekiko tolerantzia handiagoa dute. Nahiz eta nodoak galdu, oraindik zutik mantentzeko aukera gehiago dute. Sarearen egiturak asko baldintzatuko du, beraz, matxinatze-atalasea desagertzea. Sare zentralizatu batean nodo zentralak erabakiko ez balu, oso zaila litzateke gertatzea. Berdina gertatzen da sare deszentralizatuagoetan, lotura gehien dituzten nodoena litzateke erabaki garrantzitsuen. Sare banatuagoetan aldiz, zirrikitu askotatik piztu daiteke matxinada.

[Nicholas A. Christakis](#) eta [James H. Fowlerrek](#) ekarpen berriak egin zituzten. [Connected](#) liburuan hiru graduen araua betetzen dela erakutsi zuten, besteeikiko eraginari dagokionez. Gure ekintzen eraginak hiru saltotara iristen dira. Nire lagunei, nire lagunen lagunei eta horien lagunei eragiten die, alegia. Ez hori bakarrik, gaixotasunak, zoriontasuna... ere gure eragin kanaletatik hedatzen direla frogatu zuten. Batez ere, gure lotura sendoek dute gudan eragina. Teknologia berriek bakoitzak sor dezakeen eragina denboran eta espazioan zabaltzen duen arren, influentziari dagokionez lotura gogorrek eragiten dute. Baina era berean lotura arinek zabalkunde hori bizi garen *cluster*-etatik ateratzea ahalbidetzen dute.

Azkenik, [Albert-László Barabásik](#) *Burst* liburuan sare analisi dinamikoa erabiliz gizakien etorkizuna asmatzeko aukerari begiratzen dio. Ziurtasunak baino dudak jartzen ditu mahai gainean, baina argi uzten du gizakiok orokorrean *Burst* patroia betetzen dugula. Beharbada horren atzetik etorkizuneko azterketa gehiagotarako aukera ematen du. Patroi horrek gure portaeran zenbait arau betetzen ditugula ondoriozta dezake. Era berean, kasu gehienetan, kontrakoa uste badugu ere, gure portaerari begiratzen badiogu, denak oso antzekoak gara. Gaussen legea betetzen da. Egiturari begiratzen genionean gehienetan potentzia lege bat betetzen bazen, kasu honetan ez da horrela eta, beraz, antzekotasun handiak daude pertsonen jokabideen artean. Baina hori horrela izanda ere argi uzten du gure jokabide asko aurreikusi badaitezke ere, etorkizuna asmatzea ezinezkoa dela. Ezberdina baita iragartzea eta errealitatean gertatzen dena. Momentu batean erabaki txiki batek aldaketa handiak sor ditzake, eta aurre ezin izan diren portaera emergenteak sortu. Horregatik etorkizunean taldeen jokabidean ikerketak egiten jarraitu beharko dela dio. Gure gizarteak nola funtzionatzen duen, zein arau betetzen dituen aztertuz, gure mundua ulertu eta hobetzen jarraitu beharko dela, alegia.

## Sare sozialak Interneten, euskara eta testuingurua

Sare sozialen analisiak eta aipatutako teoria guztiak Internetera ondo egokitzen dira. Hala ere, gauzak argitze aldera, ez gara Interneteko sare sozialei (Facebook, Tuenti, Twitter...) buruz bakarrik ari. Nahiz eta aplikazio mota horrek oinarrian sare sozialen analisiak aurkitutako zenbait paradigma jasotzen dituen. Orokorrean Interneten mundu fisikoan ditugun sare sozialez eta Interneten sortzen direnez ari gara, baina ez aplikazio mota batzuei bakarrik begiratuz.

Interneten orokorrean mundu fisikoan ditugun sare sozialek isla izaten dute. Orain arte posta elektronikoa eta berehalako mezularitzaren bidez genituen kontaktuek egituratzen zituzten gure loturak. Oraindik tresna horiek erabiltzen badiugu ere, beste hainbat ere sortu dira.

Web 2.0 garaian sortutako askok, harremanak objektu sozialen bidez egituratzeko aukera ematen dute. Horrela partekatzen diren objektu sozialen (bideoak, argazkiak, loturak...) inguruko sare berriak eraikitzeko aukera ematen dute. Objektu sozialen paradigma [Jiry Engeström-ek](#) proposatu zuen, Sobiet Batasunean garrantzi handia izan zuen jarduera teoriaren eguneraketetan oinarrituta.

Azkenaldian, berriz, gure sare sozialak Interneten egituratzeko aukera ematen diguten Interneteko sare sozialak sortu dira. Sare horiek normalean mundu fisikoan ditugun benetako sare sozialen batura izaten dira. Jendeak horrela pentsa badezake ere, Interneteko sare sozialetan ez da jende berri gehiegi ezagutzen. Gure gertuko kontaktuekin hiperkonektatuta mantentzeko, lotura arin gehiago kudeatu ahal izateko eta horietako batzuekin lotura sendagoak ezartzeko erabiltzen ditugu gehienbat. Hala ere, hiperkonektibitate horrek eragina azkarrago eta urrunago zabaltzeko balio du. Azkarrago, lotura gogorren arteko harremana etengabea delako. Eta urrunago, aipatu bezala lotura arin asko dauden lekuak baitira.

Euskarak aipatutako tresna guztietan presentzia eduki behar du. Tresna pribatuagoak diren horietan errazagoa da euskararen presentzia ziurtatzea. Horietan pertsona bakoitzak mundu fisikoan duen jarrera erabiliko du, komunikatzen den pertsonaren arabera.

Objektu sozialetan oinarritutako webguneetan aldiz, tresnak eskaintzen duen testuingurua garrantzitsua da. Bertan biltzen den komunitatea euskalduna den edo ez garrantzitsua izango da, baita eleaniztasunaren kudeaketa nola egin ere.

Interneteko sare sozialetan, aldiz, testuinguruak garrantzia badu ere (tresna itzulita dagoen edo ez), garrantzitsuagoa da pertsona horrek ezartzen dituen harremanak eta horien mota ere. Aukerak zabaltzen dira, beraz. Berez euskaraz egiten ez duten pertsonak daudenez, kontaktu berriak bere sarean sartuz euskaraz egitea erabaki dezakete. Alderantziz ere gerta daiteke, noski. Hala ere, jada aipatu dugu sare horietan ere mundu fisikoan ditugun harreman askoren meta-sarea osatzen dugula. Beraz, horiekin guztiekin normalean izaten dugun jarrera orokorra (guztiei zuzentzen garenean) eta jarrera zuzendua (pertsona edo talde jakin bati zuzentzen garenean) mundu fisikoan ditugunaren antzekoak izango dira.

Baina Interneti dagokionez eta testuinguruari buruz ari garenean, aurkitzen dugun lehen testuingurua nabigatzailea bera da. Oso garrantzitsua da nabigatzailea euskaraz jartzea, baita hizkuntza lehenetsien artean euskara izatea ere. Lehenengoari esker euskarazko testuingurua psikologikoki aurreikustea lortzen dugu. Interneten euskaraz ere nabigatu dezakegula pentsatzen laguntzeko balio du. Bigarrenak aldiz, jada euskaraz dauden webguneak automatikoki euskaraz agerrarazten lagunduko digu. Era berean, euskaraz nabigatzen duten pertsonak daudela argi utziko dugu beste zerbitzarien estatistiketan.

## **Sarearen topologiak garrantzi handia dauka**

Interneten topologia sare banatua izateko pentsatu zuten: eraso nuklear baten ondoren, eta nahiz eta sarearen parte bat erori, besteak jarraitu ahal izateko. Gaur egun, sarea guztiz banatua ez bada ere, motibazio berdinarekin jarraitzen du. Hiperloturen oinarrian nabarmena da hau. Beste edozein webguneri lotura egin diezaiokegu, baimena eskatu gabe ere.

Hori posible egin duten gauzen artean, estandar irekiak daude. Horiei esker, ordenagailuen artean sareak sortzeko aukera libre mantentzea lortu da. Estandar ireki horiek ezagunak eta irekiak izan zirenez ordenagailu berriak erraz gehitu zitezkeen jada sortzen hasi zen Internetera, adibidez.

Gaur egun, Interneteko zerbitzuek garrantzi berezia dutenean ere, proposamen berdina egitea garrantzitsua da. Hau da, estandar irekien alde egitea garrantzitsua izango da. Horiei esker euskarak behar dituen sare deszentralizatuak eta banatuak elkar lotu ahal izango ditugu. Euskarak sare tipologia horiek hobetsi behar ditu. Euskaraz egingo duten komunitateak txikiak izango dira gehienetan, baina edozein kasutan, sare banatuek dauzkaten ezaugarriei esker norbaitek horrela nahiko balu, euskaraz egin ahal izango luke. Sare handiagoetan euskara erabiltzeko zailtasun handiagoak egon daitezke, baldin eta horiek benetako sare sozialak islatzeko aukera ematen ez badute. Seguraski sare handi horietan euskaraz ez dakien pertsonaren bat egongo baita.

Interneteko sare sozialen kasuan, sare handietatik kanpo, baina horiekin lotzeko aukera ere emango luke horrek. Alde batetik, euskarazko tresna lokalak sortzeko aukera izango genuke, baina beste sareekin lotzeko aukera. Jada sortuta dauden komunitateek eta etorkizunean sor daitezkeen komunitateek aukera hau baliatu ahal izango lukete sare handiago baten parte izateko, beraien independentzia eta berezitasunak mantenduz. Sortuko litzatekeen ekosistema hau, sare zentralizatu handiak baino sendoagoa litzateke dudarik gabe, eta komunitate txikiagoetan antolatuta dagoenez, seguruenik baita parte-hartzaileagoa ere.

## Lotura arinak baliatu

Lotura arinei esker gure ohiko sareetatik kanpo gure mezua garraiatzeko aukera dugu. Normalean gure mezuak hainbat pertsonen jarraitzen badituzte, nahikoa da beste sare batean dagoen pertsona batek gure mezua zabaltzea, gure mezua pertsona horren sarean ere garraiatzeko. Hori horrela izanik eta euskararen kasuan, lotura arin horiek gure hizkuntza komunitatetik kanpora ateratzeko ere erabili beharko ditugu.

Jendartean, zein Interneten bakoitzak ditugun lotura arin horiek detektatu eta horiekin egiten ditugun ekimenak, sortzen ditugun gauzak, proiektuak... komunikatzea oso garrantzitsua da. Horretarako kasu batzuetan beste hizkuntza batzuk erabili behar baditugu ere, garrantzitsua da egitea. Ikusi dugu aurretik ere Interneteko sare sozialak batez ere lotura arin horiek hobeto antolatzeke balio dutela. Sare hauetan gure hizkuntza komunitatetik kanpo atera nahi badugu, batzuetan euskara ez den hizkuntza bat erabili beharko dugu, euskaraz egiten ditugun ekimenak komunikatzeko. Honek euskarari prestigioa emango dio, baita hizkuntza komunitatetik kanpo ere.

Hizkuntza komunitateari begiratzen badiogu, hemen ere komunitateen arteko lotura arinak erabiltzea garrantzitsua da. Askotan nahiz eta hizkuntz komunitate berdineko pertsonak izan, ez baitago komunikaziorik. Lotura arin horiek eta Internetek horiekin komunikatzeko eskaintzen dizkigun aukerak baliatuz, gure mezua sareetan barna zabaltzea lortu behar dugu. Jada sortuta dauden proiektuak ([EuskalTube](#), [Bildu.net](#), [Blogari.net](#), [Blogak.com](#), [Argazkiak.org](#), [ZutaGu...](#)), ekimenak ([Hitzokei](#), [Gaurko hitza](#), Blogs & Beers,...), tresnak ([Mozilla Firefox](#), [Wordpress](#), [Open Office](#), [Ubuntu...](#)) etabar ezagutarazi behar dira.

Era berean, sortzen denari erabilera balio handiagoa eman behar diogu. Asko sortzen ez bada ere, sortzen den guztia ahal bezainbeste ezagutarazi eta erabili behar da. Horregatik erakundeek, proiektuek, enpresek, pertsonen... euren esku dituzten baliabide guztiak erabili behar dituzte euskarazko informazio hori sarean zehar garraiatzeko. Hori egiteko pauso interesgarri bat Interneteko sare sozialetan ere informazio kanalak irekitzea izan daiteke. Informazio kanal bat ireki ahal izateko ez da gauza handiegirik egin behar. Interneteko sare sozial horietan kontu bat sortu eta hori ezagutarazi. Besterik ez. Zure helburu diren pertsonen sortu duzula komunikatu eta nahi badute izena emateko aukera eman.

Era berean, webgune, blog edo beste kanaletan, sortzen dugun informazioa sare horietara erraz eramateko aukera ematen duten tresnak erabili behar dira. Zuzenean informazioa bertara bidaltzen dutenak, edota nahi duenak egin ahal izango duela ziurtatzen duten tresnak erabili.

Helburua argia da, egiten ditugun ekimenen informazioa jendeak hainbeste denbora pasatzen duen leku naturalean ezagutarazi. Orain arte beste komunikazio bideak erabili ditugun bezala; informazio kanal moduan, alegia. Eta aldi berean, beraiei ere gure webguneetan egiten dutena sare horietan komunikatu.

## Sare-komunitateak indartu

Hainbat saretan murgilduta bizi garela argi dago, baina sare horiek ezberdinak izan daitezke. Horietako batzuk komunitateak ere badira. Hau da, identitatea eta funtzionamendua antzekoak dituzten sareak. Sare mota hauetan konpromisoa handiagoa izan ohi da eta horren ondorioz baita parte-hartzea eta elkarrekintza ere.

Komunitate horien funtzionamendua Interneten era askotan eman daiteke eta ematen da. Bakoitzak gogoko tresnak erabiltzen ditu. Ez dute zertan azken modako tresnak izan behar; bakoitzak erabili nahi dituen tresnak aukeratzen ditu eta bereganatu.

Euskararentzako era honetako egiturek berebiziko garrantzia dute. Alde batetik pertsonen parte-hartzea sustatzen dutelako, baina beste alde batetik, jendeak hauekiko duen atxikimendua ere handia delako. Era honetako komunitateen sorrera ahalbidetzea garrantzitsua da, beraz.

Horretarako era honetako ekimenak bultzatzen dituzten testuinguruak landu behar dira, baita Interneten ere. ZutaGu ezagutza partekatzeako sare sozialak adibidez, antzeko interesak dituzten komunitateak biltzeko aukera ematen du. Interneteko sare sozial honetan komunikazioan, hezkuntzan, garapenean, artean, argazkilaritzan... interesa duten taldeak elkartu dira. Horri esker, interes horiek zituzten pertsonen arteko ezagutza elkartrukea eta ezagutza berria sortzeko ahalbidetzen da. Adibide bat besterik ez da eta hau hasi besterik ez da egin, baina klima eta baliabide egokiak eskainita, komunitate horiek (berriak ere bai) sortzen lagundu dezakegula argi dago.

Era honetako komunitateek, gainera, arau propioak ezartzen dituzte. Inguruneak egokitzen onartzen dituen horiek dira arauak eta oso zaila da horiek aldatzea. Euskararen kasuan hau oso garrantzitsua da, kasu batzuetan arauak ez baitu laguntzen. Komunitate euskaldun hauek sortutako arauak ondoren beste sareetan ere eragina izan dezakete, eta aldatzen zailagoak diren arau orokorrak aldatzen lagundu. Izan ere, arauak batez ere lotura gogorren artean komunikatzen dira eta hori da zehazki komunitate hauen izaeratako bat. Normala baino lotura gogorragoak ezartzen dira partaideen artean.

Beste gai interesgarri bat eta askotan hitz egiten dena komunitateen tamainarena da. Komunitateak denboran zehar mantentzeko zein den tamaina egokia ere asko eztabaidatu izan da. Komunitate txikitat, 150 partaide baino gutxiago dituztenak har ditzakegu. Hau da [Dunbar zenbakiaren](#) azpitik dauden komunitateak. Denboran zehar gehiago mantentzen dira, baldin eta partaideak mantentzen badira. Aldiz komunitate handiagoetan, partaideen errotazioak komunitateak denboran irautea ahalbidetzen du.

## Sareetan izan, ez egon

Komunitate batean parte hartu edota talde konkretu batean eragin nahi izanez gero, garrantzitsua izango da talde horren dinamika ulertzea. Informazioa helarazi nahiko bagenu, dauden sareetan komunikazio kanalak irekitzearekin nahikoa izan daiteke, baina bestela horrelako ekimenek jende berezia behar dute. Beraien sarean onartuak izango diren pertsonak; hau da *Maven* bat izan behar duzu. Talde horrek zu aukeratu behar zaitu eta ez alderantziz.

Aurreko ataletan aukera ezberdinak ikusi ditugu, informazio kanala sortu edo komunitateetan parte-hartzea eta elkarrekintza sustatu. Aukera ezberdinak daude, aukera bakoitzak konpromiso ezberdinak dituzte. Hori hoberen azal dezakeen metafora, [konpromisoaren piramidea da](#). Konpromisoaren piramidea, Interneteko ekimen batean (baita jendartean ere) pertsonak zure proiektuarekiko, zerbitzuarekiko, taldearekiko... duten konpromisoa adierazteko balio duen piramidea da.



*Konpromisoaren piramidea  
([lasindias.coop](http://lasindias.coop))*

Oinarri-oinarrian ezagutza dago. Gure marka, enpresa, proiektua ezagutaraztea. Orain arteko publizitatearen bidez lor daitekeen maila da. Erabiltzailearekiko edo bezeroarekiko harreman gutxiko jardura da. Ondoren atxikimendua dator. Proposatzen dugun kanpaina, produktu, zerbitzu bati erakusten zaion atxikimendua. Hori lortzeko, Interneten Facebook bezalako Interneteko sare sozialek balio dezakete, eskatzen zaien konpromisoa txikia baita oraindik. Baina, gurekin harremanetan dauden pertsonekin harreman gehiago nahi badugu, parte-hartze formulak proposatu beharko ditugu. Iruzkina uzteko aukera ematen duten zerbitzuak, objektu sozialak partekatzeko aukera ematen duten tresnak, foroak eta abar dira tresna arruntenak. Fase honetan jada jendearen parte-hartzea zuzenagoa da.

Hurrengo saltoa elkarrekintza litzateke. Maila berean, erabiltzailearen, bezeroaren eta gure arteko harremana bi zentzuetakoa litzateke. Era honetakoak izan ohi dira blogen artean sortzen diren eztabaidak, wikiak eta beste hainbat tresna ere. Tresnak berez ez dira garrantzitsuak, baldin eta komunitate horrek bereganatu baditu. Hori konpromiso publiko konkretu eta elkar-ulertze berezi bilakatu ohi da.

Fase honetara iritsita eta egoerak irauten badu, identitate komunak eta komunitate izaera agertzen hasten dira. Hau da, garrantzitsuenak eta gurekiko harreman maximoaren adierazleak. Horregatik, komunikazio eta marketin enpresek Interneteko kanpaina asko Facebooken edo beste Interneteko sare sozialetan dituzten «lagun» kopuruaren arabera neurtzen badituzte ere, atxikimenduaren fasean gelditzen dira askotan. Komunitate erreal txiki batek zenbaki handi horiek guztiek baino askoz gehiago balio duela konturatu gabe.

## **Ziurgabetasun ziurragoa**

Pertsonak dugun portaera denbora askoan mantentzen da askotan. Hala ere, oso zaila da etorkizuna asmatzea, edozein momentutan aldaketa txiki batek ondorio handia izan baitezake gure konexioei esker. Azken finean, ziurgabetasun handiko eremu batean bizi gara, Interneten egunero

ikus dezakegun bezala. Sortzen ditugun sare gehienetan gertakariak ez dira linealak, hau da ekintza txiki batek eragin handia izan dezake, eta alderantziz ere bai.

Sare analisi dinamikoari esker badakigu sare horiek *scale-free* moduko sareak direla eta partaideek beren harremanak itxiz eta irekiz aldaketak sor ditzaketela. Interneteko sare sozialei begiratzen badiegu lotura arin asko daude, ikusi dugun bezala, eta horrek mezuak hedatzea errazten du. Era berean, ikusi dugu aldaketa txikiei esker eta testuinguruaren arabera, aldaketa txiki horiek beste batzuegan eragina izan eta eraldaketa globalak ekar ditzaketela, *tipping point* batean amaitu arte. Hori izango da helburua, beraz. Kanpaina bat abiatu, baina kanpaina horren garraiatzaile ez dugu guk izan behar, sare horietako partaideak baizik. Mezua bota dezakegu, baina beraiek erabakiko dute mezu hori garraiatu edo ez. Normalean kanpaina horietan kontrola galtzen da. Helburua kontrola bera galtzea dela ere esan daiteke.

Kanpaina horiek zabaltzea lortzeko, zuzentzen gatzazkien pertsona horien intereseko gaiak eta edukiak izan behar dute. Mezuak argia eta itsaskorra izan behar du eta besteei pasatzera gonbidatzen duten elementuak izan behar ditu. Azken finean, gure mezua objektu sozial bihurtu behar dugu. Hori lortu ahal izateko interesgarriak dira, adibidez, Interneteko sare sozial horietan mezuak garraiatzea proposatzen duten lehiaketak.

Horrelako kanpaina bat testuingurua ezagututa edo ezagutu gabe egin dezakegu. Noski, sare horietako pertsonak beraien artean dituzten harremanak ezagututa erreferenteak eta konektoreak zein diren jakinda, mezua errazago zabaltzen saia gaitezke. Baina hori baino garrantzitsuagoa da sarearen dentsitatearen eta matxinatze-atalasearen berri jakitea. Testuinguru hori guztia ezagutzea zaila da, baina horren gaineko balorazioak egin ditzakegu.

### ***Matxinatze-atalase baxuetarako***

Era honetako egoerak aurreikusten baditugu, berez gure mezua garraiatuko duten pertsonak egongo dira, mezua interesgarria delako edo pertsona horiek prest daudelako hori egiteko. Era horretako egoeretan, sarea gehiago trinkotzen saia gaitezke. Batak bestea ezagututa errazago sortuko/zabalduko dituzte mezuak.

Hori egin ahal izateko, ezagunen artean elkarren arteko ezagutza handiagoa bilatzen duten ekimenak bultzatzea da Interneteko sare sozialetan. Baina hori lortzeko ikusi dugu alde fisikoak garrantzia handia duela. Horren ondorioz, harremana duten pertsonen arteko dinamikak bultzatzea daiteke, sare horiek trinkotzeko.

Euskara erabiltzeko joera hartzen badugu, adibidez, egoera euskara erabiltzeko joera duten pertsonen artean dela pentsatzen ari gara kasu honetan. Gazte horien arteko ezagutza maila handituz, euskaraz hitz egiten dutenen arteko sarea trinkotuz... Euskaraz dakitenek eta egin dezaketenek euskaraz egitera jo dezakete, bere ingurunean ezagutzen dituzten horiek euskaraz hitz egiten dutela ikusten baitute.

### ***Matxinatze-atalase altuetarako***

Egoera hau aurreikusten badugu, aldiz, gure mezua garraiatuko duten pertsonak gutxi direla pentsatzen dugu. Mezua zabaltzeko prest egon daitezkeenak ez dute mezu hori garraiatuko, beraien testuinguruan egitea espero ez dutelako. Horren ondorioz mezua zabaltzeko prest dauden horiek, beraien antzeko interesak dituztenekin elkar lotzen saia gaitezke. Horrela pertsona horien sarearen testuingurua aldatuko da eta momentu batean mezua garraiatzea erabaki dezakete, testuingurua egokiagoa baitzaie.

Interneteko sare sozialetan, interes antzekoak dituzten pertsonak elkar lotzen saia gaitezke, ezagutzen ez direnak elkar ezagutzeko aukera ematen duten ekimenak burutuz.

Berriro euskara erabiltzeko joera hartuta, pertsona horiek euskaraz jarduteko arazoak izaten dituzte, beraien testuingurua egokia ez delako. Ezagutzen ez ziren eta euskaraz hitz egin nahi duten pertsonak elkar lotzen baditugu, beharbada, euskaraz hitz egiten has daitezke. Horren ondorioz, ingurukoak ere hori ikustean jarrera aldatu eta berdina egiten has daitezke.

### **Edozein kasutan**

Aipatutako edozein kasutan ez gara ziurtasun osoz jokutzen ari, Heisenbeg-en ziurgabetasunaren antzeko joko batean baizik. Gure ekintzek helburua lor dezakete edo ez, baina behintzat lortzeko probabilitateak handitzen saia gaitezke.

## **Jarrera emergenteak ahalbidetu**

Sareen dinamikak ulertuta, sareek propietate emergenteak dituztela erraz uler dezakegu. Propietate horiei esker espero ez ditugun gauzak gertatzen dira. Hori errazteko pertsonak ahalduntzea eta katalizatzaile egokiak izatea garrantzitsua da. Era berean, inklusiboak diren ideia berriak pentsatu eta proposatzea ere interesgarria izan daiteke. Jende gehiago elkar-lotzea bultzatuko dituzten ekimenak hain zuzen ere. Blogs & Beers, Pintxos & Blogs, [Letrartean](#), [Ideiazoka](#), [Blogsoviet](#), [Txintxarrisfera](#), [Aprendices](#)... bezalako ekimen informalak adibide politak dira.

Pertsonei dagokionez, lehen gauza pertsonak ahalduntzea da. Ahalduntzea, kolektibo bati boterea ematea da, ondoren, autogestioaren bitartez kolektiboak berak bere egoera hobetu dezan.

Aurreko ataletan ikusi dugu nola Interneteko sare sozialak lotura arinak sortu eta kudeatzeko tresnak diren gehienbat. Era berean, sare mota horien komunikatzeko ahalmena oso handia dela ere ikusi dugu. Horren ondorioz, eta nahiz eta bere aurrean tresnak eduki, botere mediatiko, ekonomiko eta moda askoren garraiatzaile hutsak izaten bukatzen dute pertsona askok. Tresna horiek euren alde baliatzen jakin behar dute eta beste batzuetan beraien tresna propioak garatu. Beren diskurtso propioa, beren etorkizun propioa, bere botere propioa garatu dezaketela argi utzi behar zaio jendeari.

Sare hauetan, Interneten orokorrean eta baita kalean ere, gauza berriak sortzeko gauza direla jakinaraztea beharrezkoa da. Hori egiteko baliabideak beharko dituzte batzuetan, eta baita testuinguru egokia ere. Inposatutako eta kontrolatutako testuinguruek ez dute asko laguntzen, ez baitira ekosistema egokiena gauza berriak sortzeko. Ez da arraroa izaten herrietako gaztetxeak, adibidez, sortzaile gune handienak izatea. Dinamika horiek bultzatzea oso garrantzitsua da; edo, behintzat, ez oztopatzea.

Interneten ere, gauza berriak sortzeko aukera dutela argi utzi behar zaio jendeari. Horretarako software librea bezalako tresnak ezagutarazi behar dira. Masak dauden tokietatik kanpo bakoitzak bere errealitatera egokitutako tresnak sor ditzake, berae ingurunean balio handikoak izan daitezkeenak. Gutxi izan daitezke hori egitera animatzen direnak, baina asko, gutxi batzuen lana balioztatuta eta erabiltzen has daitezke.

Software librea bezalako katalizatzaileak beharrezkoak dira horretarako. Propietate emergente horiek baliatzeko aukerak biderkatzen dituzten tresnak dira. Beraiei esker espero ez ditugun gauzak egiteko aukera gehiago irekitzen dira. Softwarea kasu argigarria da. Software libreak kodea

eraldatzeko ematen dituen aukerei esker, beste era batean edukiko ez genukeen euskarazko softwarea dugu. Batzuetan bolondresak sortuta, eta beste batzuetan hainbat interes ekonomikori edo pertsonalei esker. Edozein kasutan, etorkizunean ere egindako euskaratze hori beste software batzuk itzultzeko erabil daiteke eta egindako inbertsioari (ekonomikoa izan edo ez) etekin handiagoa atera.

Edukiarekin ere berdin gertatzen da, euskarazko edukiak kopiatzeko, eraldatzeko eta hobetzeko aukerei esker gauza hobeagoak egin daitezke. Horretarako lizentzia libreak eta hori ahalbidetzen duten bideak (domeinu publikoa kasu) erabiltzea garrantzitsua da. Honekin lotuta datuak irekitzearen aldeko joera ere garrantzitsua da. Datuak erabilgarriak badira, datu horiek interpretatu eta horiekin gauzak egiteko prest egongo diren pertsonak ager daitezke. Zentzu horretan adibide onak dira [GureGipuzkoa](#), [Wikipedia](#) eta [Open data euskadi](#).

Estandar irekien erabilera ere oso garrantzitsua da. Horiei esker tresnak beraien artean elkarlotzeko aukera izango dugu. Horieek esfortzu banatuak batzeko aukera eskaintzen dute. Proposatu dugun sare deszentralizatu eta banatuentzako erabateko garrantzia dute.

Interneteko esparruan egiten diren proiektu auto-eratuak ere, mundu fisikoan antolatzeko era berriak eta aukera ekonomiko berriak ere ekar ditzakete, eta baita alderantziz ere. Esperimentatzeko aukerak eman behar zaizkio jendeari, gauza berri eta interesgarriak sortzea nahi badugu.

## Ondorioak

Urteetan zehar sare sozial dinamikoen inguruan egindako azterketek eta analisiak asko lagundu digute gaur egun Interneteko fenomeno asko ulertzeko. Horien artean eta bereziki Interneteko sare sozialak ulertzeko oso garrantzitsuak dira. Ez bakarrik hori, tresna asko, azterketa hauetan aurkitutako ondorioetan oinarritzen dira. Baina trena horietatik kanpo beste tresna eta portaera asko ulertzen ere laguntzen dute.

Baina Interneten orokorrean eta hizkuntzari dagokionez batez ere, errealtatean izaten ditugun jarrera antzekoak hartzen ditugu. Interneteko sare sozialetan adibidez ezagutzen ditugun (gutxi bada ere) pertsonak izaten ditugu. Sare horietan ez dira pertsona berri asko ezagutzen, bai aldez ezagutzen ditugunak edo ezagunen ezagunak bildu.

Hala ere, Interneteko sare sozialek eta orokorrean komunikazio tresna berriak hiperkonektatuta bizitzera eramán gaituzte. Horri esker pertsona interesgarriak topatzeko errazagoa da. Distantzia fisikoaren mugak garrantzia gutxiago dauka. Beste distantzia neurri batzuk sortu dira bidean, sareetan dugun posizioaren arabekoak, adibidez. Etorkizunean ere bakoitza murgilduta bizi garen sareetan dugun posizioak garrantzi handia izango du alor askotan.

Murgilduta gauden sare horiek guztiak gudan eragina dute eta guk bertan parte hartzen duten pertsonengan ere eragina dugu. Eragin hori oso erreala da eta gure sareetan hiru saltotara ere iristen da. Testuinguruaren arabera eta agente bakoitzak momentuan hartzen dituen erabakiengatik, sareek dinamismo handia erakusten dute. Argi dago aukera berri horiekin Interneten sortzen ditugun konexio eta harreman berriak jendartean ere eragina dutela. Hau horrela izanik, sareen azterketaren bidez, euskararen alorrean proposamen berriak egin ahal izango ditugu.

Lotura arinen bidez hizkuntza komunitatetik kanpo (beste hizkuntza batzuk baliatuz), zein barruan (jada sortua dagoena zabalduz) lan egin behar dugu. Horretarako oso interesgarria izango da kanal

berriak irekitzea, batez ere sare sozialen analisisan oinarritzen diren erabakiak hartzen laguntzen diguten Interneteko sare sozialak baliatuz.

Informazioa garraiatzeaz gain, parte-hartze eta elkarrekintza gehiago sortu nahi badugu, komunitateak sortu eta hauei laguntzea beharrezkoa da. Sare hauei zerbitzu, tresna eta testuinguru bereziak eskaini behar zaizkie, sormena garatu ahal izateko. Bakoitzak bere berezitasun eta barne arauak izango baditu ere, aldi berean sortzen diren beste komunitateekin elkar-lotzeko aukerak kontuan hartu beharko dira.

Aipatu dugun ekosistema horrentzako guztiarentzako proposamena beraz deszentralizatu edo banatua da. Sare-komunitate bakoitzak bere arauak, tresnak, berezitasunak izango ditu, baina denak elkar-lotzeko aukera, aldi berean. Tresna zentralizatuagoek eta handiagoek, ohiko Interneteko sare sozialek adibidez, informazioa elkar-trukatze eta atxikimendurako balio dezakete eta neurri horretan ere erabili beharko ditugu. Baina, parte-hartze eta elkarrekintza handiagoak bilatzen baditugu, komunitateen arteko sareak interesgarriagoak izan daitezke.

Pertsonen dugun portaera denbora zehar nahiko berdintsua da. Hori horrela bada ere, oso zaila da etorkizuna asmatzea, edozein momentutan aldaketa txiki batek efektu handia izan baitezake ditugun konexioen ondorioz. Azken finean ziurgabetasun handiko eremu batean bizi gara, Interneten egunero ikus dezakegun bezala. Hala ere, Internetek, jendarteak ez bezala, pertsonak sareetan nola egituratzen diren ikusteko aukera ematen digu. Gauzak gertatzeko aukera gehiago ematen duten sare egiturak bilatu behar ditugu. Horretarako sareetan kasu bakoitzean aldaketak egitea edo proposatzea garrantzitsua izango da. Hori horrela eginda ere, ezingo dugu ziur egon bilatzen dugun hori (euskaraz hitz egitea, adibidez) gertatuko dela, baina probabilitate gehiago egon daitezke.

Azkenik, sareek ahalbidetzen dituzten portaera emergenteak bultzatzen dituzten elementuak ere bultzatu behar dira. Ezinezkoa da dena planifikatzea eta aurreikustea. Horregatik nahi ditugun portaerak ahalbidetuko dituzten proiektuak, baliabideak, ekimenak... bultzatu behar dira. Lehenik eta behin, pertsonak ahaldu behar dira eta, beste alde batetik, portaera horiek bultzatuko dituzten katalizatzaile egokiak sortu. Kontrola galtzeko beldurrik gabe, kontrola galtzea baita helburua.

Interneteko sare sozialak, sare sozialen analisi dinamikotik begiratuta

Arteta kalea 1 7 C · 20140 Andoain (Gipuzkoa)  
Tel (+34) 669 24 95 84  
gorka@teketen.com · **<http://teketen.com>**